

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO GAITASUN PROBAK 2009 (LOGSE)

MARRAZKETA TEKNIKOKO ARIKETA


**JARRAIBIDEAK:** AZTERKETA HONEK BI MULTZO DAUZKA. LEHENENGO MULTZOAN HIRU ARIKETA DAUDE, ETA HORIETATIK BI EGIN BEHAR DITUZU. BIGARREN MULTZOAN SISTEMA DIEDRIKOARI BURUZKO BI ARIKETA DAUDE, ETA HORIETATIK BAT EGIN BEHAR DUZU.

LEHENENGO MULTZOA  
 HURRENGO HIRU ARIKETETATIK BI EGIN BEHAR DITUZU

**LEHEN ARIKETA:** (3 PUNTU)

ONDORENGO PIEZAREN GOITIKO BISTA EMANDA, MARRAZTU GOITIKO BISTA HORRI EGOKITZEN AHAL ZAION AURRETIKO BISTA BAT, ETA SEKZIOREN BAT, BEHARREZKOIA IRUDITZEN BAZAIZU. AURRETIKO BISTAREN KOTAK EZARRI AHAL DEN HEINEAN, ETA ARAUAK ERRESPETATUZ. HARTU NEURRIAK ZUZENEAN EMANDAKO AURRETIKO BISTAN. 1:1 ESKALAN DAGO MARRAZTUTA.

ZULO GUZTIAK  
 IRAGANGARRIAK DIRA



**BIGARREN ARIKETA:** (3 PUNTU)

ERAIKI ABC TRIANGELUA HONAKO DATU HAUEKIN:  
**A-B=80 mm**; ERDIBIDEKOA A-B-ren GAINEAN=45 mm; C-ko ANGELUA=105°.

C-tik PASATZEN DEN ETA A-n ETA B-n FOKUAK DITUEN ELIPSEAREN LAURDEN BAT ERAIKI.

**HIRUGARREN ARIKETA:** (3 PUNTU)

MARRAZTU PERIZIKLOIDE ZIKLO BAT DATU HAUEKIN:  
 OINARRIAREN ERRADIOA = 40 mm  
 ERRULETAREN ERRADIOA = 15 mm

**BIGARREN MULTZOA**  
**HURRENGO BI ARIKETETATIK BAT EGIN BEHAR DUZU**

**SISTEMA DIEDRIKOARI BURUZKO LEHENENGO ARIKETA (4 PUNTU)**

**A(0,40,40), B(30,55,55)** PUNTUAK EMANDA, MARRAZTU  $45^{\circ}$ -KO ANGELU DESBERDINA DUEN TRIANGELU ISOSZELE BATEN PROIEKZIOAK. EMANDAKO PUNTUEK MUGATZEN DUTE TRIANGELUAREN ALDE DESBERDINA, ETA HIRUGARREN ERPINA LEHENENGO ERDIKARIAN DAGO, AHAL DEN GARAIERA HANDIENEAN.

**SISTEMA DIEDRIKOARI BURUZKO BIGARREN ARIKETA (4 PUNTU)**

PLANO PROIEKTATZAILE BERTIKAL BATEK ERLOJUAREN ORRATZEN AURKAKO NORANZKOAN  $45^{\circ}$  OSATZEN DU PROIEKZIO PLANO HORIZONTALAREKIN. BARRUAN **50 mm**-ko ALDEA DUEN TRIANGELU ALDEKIDE BAT DAUKA. TRIANGELUAREN ZENTROA **O (0,35,50)** PUNTUA DA. ERPIN BATEK AHAL DEN URRUNERA HANDIENA DU. IRUDI HAU OKTAEDRO BATEN AURPEGIA DA. AURPEGI HORREN AURKAKO AURPEGIA PLANO HORIZONTALA ETIK AHAL DEN GERTUENA DAGO. AURKITU POLIEDRO HORREN PROIEKZIOAK.